



AURRERA!

78. zk.

2021eko abendua

Berrikuntza eta Teknologia Berrien dibulgaziozko aldizkaria

Bulego Teknologikoak argitaratua

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza

AURKIBIDEA

▲ Espediente
Judizial Elektro-
nikoa Euskadin
2. or.

▲ Osalanen
intraneta
Sharepoint-en
oinarrituta
6. or.

Alboan

▲ Eusko
Jaurlaritzaren
SEN ziurtagiria
10. or.

Kontrazala

▲ Euskariana
▲ 2021eko Ada
Byron saria
Elena García eta
Jordina
Torrentsentzat
12. or.

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak sinatu berri duten lankidetzeta-hitzarmenaren ondoren, espediente judizial elektronikoa gero eta hurbilago dago, AVANTIUS aplikazioari esker. Espero da 2023an Euskadik prozesu-kudeatzaile berri bat izatea, izapidetze elektronikoa oso gauzatzeko, %100 digitala. Baina une hori iritsi aurretik, lehenik eta behin AVANTIUS eta hori jasan behar duen azpiegitura egokitu behar dira. Lehenengo artikuluan Justizia Administrazioak gaur arte egindako urratsak aztertuko ditugu, eta baita eman beharreko hurrengo urratsak ere.

Bigarren artikuluan, Osalanek azalduko digu zer pauso eman dituzten, Microsoften Office365 berriak eskaintzen dituen funtzionalitateak aprobetxatuz, Intranet berri bat diseinatu eta ezartzeko, Osalaneko langileek beren izapideen ezagutza eta dokumentazioa partekatu ahal izan dezaten.

«*Alboan*» atalean, SEN ziurtagiria zer den, Eusko Jaurlaritzaren informazio-sistemak ziurtatzea zergatik den beharrezkoa eta horretarako eman beharreko urratsak aztertuko ditugu.

Kontrazaleko «*Ixteko*» atalean, «*Euskariana*» aurkeztuko dizuegu, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak berriki abian jarri duen proiektua, euskara eta bere ondarea bultzatzen eta balioesten jarraitzeko. Euskarak aurrera egiten jarraitzen du eremu digitalean.

Era berean, «*Protagonistak*» atalean, Elena García eta Jordina Torrents zientzialarien profilak aurkeztuko dizkizuegu, «*2021eko Ada Byron Saria*» irabazi berri dute eta.

Eta urtea amaitzeko...

Erionak eta urte berri on

2022



Espediente Judizial Elektronikoa Euskadin



Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena sinatu ondoren, Euskadiko Justizia Administrazioak AVANTIUS Prozesu Judizialen Kudeatzailea erabiliko du, eta, horri esker, Espediente Judizial Elektronikoa ezarri ahal izango du.



JustiziaBAT: Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioaren azken urteetako prozesu judizialak kudeatzeko aplikazioa da. Aplikazio hori arduratzen da espediente judizial elektronikoen beren bizi-zikloan osatzen duten informazio guztia tratatzeaz. JustiziaBAT beste aplikazio batzuekin integratuta dago, besteak beste, JustiziaSIPekin, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Administrazioari kanpoko erabiltzaileek (abokatuak, prokuradoreak, gizarte-graduatuak) prozedura judizialak jakinarazteko eta telematikoki izapidetzeko erabiltzen duten aplikazioa.



Eusko Jaurlaritzak Justiziaren modernizazioaren arloan azken urteotan egindako ekimenen helburua izan da izapidetze judiziala erabat elektronikoa izatea. «Espediente Judizial Elektronikoa» (EJE) esaten zaio horri, eta espediente judizial bat izapidetzean sortzen den informazio guztia bilduko luke, bai eremu judizialek emandakoa, bai alderdiek prozesuan zehar emandakoa, edo perituen eta profesionalen txosten edo ekarpenetatik eratorritakoa.

EGUNGO TESTUINGURUA

Euskadiko Justizia Administrazioak, gaur egun, elkarri lotutako lau sistema ditu oinarri:

- ▲ **JustiziaBAT**¹: prozesu judizialen kudeatzailea da
- ▲ **JustiziaSIP**: profesionalen eta bulego judizialen arteko komunikazio telematikorako tresna da
- ▲ **JustiziaIkusBI**: bistak grabatzeko sistema da
- ▲ **Justizia.eus**: Euskadiko Justizia Administrazioaren webgunea da, egoitza judizial elektronikoen atariak barne hartzen dituena (herritarren arloa eta profesionalen arloa, atari publikoa eta intraneta)

Aplikazio horiekin, azken urteotan, aurrera egin da Espediente Judizial Elektronikoa pausoz pauso inplementatzen, epaitegietan eta auzitegietan jarduten duten profesionalekin komunikatzeko beharrezkoak diren bitarteko elektronikoa erabiltzen, edo beste administrazio batzuekin komunikatzeko, eta

baita sinadura elektronikoa erabiltzen ere. Baina arazo bat du, gaur egun **espediente hibrido** gisa inplementatuta dagoela, hau da, espedienteen dokumentazioaren zati bat formatu elektronikoa dago, eta beste zati bat paperean. Beraz, gaur egun, oraindik ez da lortu espediente judizialaren izapidetze elektronikoa osoa, eta, gainera, ez da guztiz elkarreragingarria Justizia Elektronikoen Administrazioarako Estatuko Batzorde Teknikoak ezarritako **arau teknikoaren arabera**, Justizia Administrazioaren informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera arautzen duen uztailaren 5eko 18/II Legearen ezarritakoaren arabera.



Hori guztia kontuan hartuta, Justizia Sailburuordetzak erabaki zuen 2024rako EJE inplantatzea, baina, ondoren, 2023ra aurreratuko da. Horretarako, 2020ko otsailan, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzaren mendeko Informatika Judizialeko Zerbitzuari (IJZ) agindu zitzaion azterlan tekniko bat egitea, honako hiru alternatiba hauen **bideragarritasuna** aztertzeko:

1. JustiziaBAT eta JustiziaSIP egungo sistemen bilakaera
2. Sistema propio berri bat «ex novo» sortzea
3. Beste autonomia-erkidego batzuetan edo

Justizia Ministerioaren eremuan ezarritako sistemetako bat hartzea

Azkenean, azterlanaren arabera, hirugarren aukera zen egokiena, hau da, beste autonomia-erkidego batean ezarritako sistema bat aukeratzea, eta, zehazki, AVANTIUS-PSP sistema aukeratu zen (Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa), zeinak abantaila argiak baitzituen, bai funtzionalki bai azpiegiturei dagokienez.

Era berean, hasiera batean AVANTIUS sisteman ikusitako gabeziak (adibidez, elebitasunaren aukera eta Bulego Judizial Berria —BJB— ez zituen barne hartzen) epe laburrean landu zitezkeela pentsatu zen, eta ez zirela inolako oztoporik izango Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzak Euskadin EJE ezartzeko aurreikusitako epea betetzeko. Gainera, BATERA ingurune teknologikoan oinarritutako zerbitzuekin lerrokatuta zegoen, eta, era berean, gaur egungo egoera nabarmen hobetuko zuen (JustiziaBATen teknologia nabarmen zaharkituta baitago).

«Helburua da Espediente Judizialaren izapidetze elektronikoa osoa izatea, eta erabat elkarreragingarria izatea»

Horren guztiaren ondorioz, joan den urriaren 5ean hitzarmen bat sinatu zuten Nafarroako Foru Erkidegoak eta Euskal Autonomia Erkidegoak, AVANTIUS sistemaren erabilera lagatzeko («jatorrizko» bertsioan). Horrela, bi administrazioek bertsio berberak izango dituzte instalatuta uneoro. Era berean, lagatzen dira «Asigna» laguntza juridikoaren aplikazioa eta «Profesionalen Ataria» izeneko aplikazioa (Justiziako lanbide-kolektiboekiko harreman telematikoetarako erabiltzen dena).

Bi administrazioek Batzorde misto bat eratuko dute AVANTIUS ezartzeko proiektuaren jarraipena errazteko. Batzorde hori arduratuko

da, gainera, beharrezkoak diren aldaketak edo hobekuntzak batera egiteaz.

Akordioaren arabera, Prozesu Judizialen Kudeatzailearen erabilera doakoa da eta lau urtez luzatuko da, beste lau urtera luzatzeko aukerarekin.



AVANTIUS kudeatzaileak kanpoko beste erakunde batzuen informazio-sistemekiko **elkarreragingarritasuna** bermatzen du, hala nola, Estatuko Fiskaltza Nagusiarekin, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin... Gainera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak² (BJKN) ezarritako «Bateragarritasun-testa»³ betetzen duen lehen sistemetako bat da.

PARAMETRIZAZIOA

Euskadin Espediente Judizial Elektronikoa adostutako epeetan ezartzeko, lehenik eta behin, bilera tekniko-funtzionalak egin ziren IJZeko langileen eta Nafarroako ITRACASA enpresa publikoko teknikarien artean, bi sistemen funtzionaltasunak partekatze, eta, horrela, oinarri sendoa izan zuten ezarpen-prozesuan gauzatu beharreko beharrak eta jarduketak zehazteko.

Ondoren, IJZ eta ITRACASAk langileen lan-saioak egin ziren Euskadiko Justizia Administrazioan lan egiten duten langileekin, eta organo judizial mota bakoitzaren lan-prozesu, berezitasun eta funtzionamendu guztiei buruzko informazioa bildu zen, AVANTIUS gure beharretara egokitzeko lan-ildoak zehazteko; parametrizazioa, konfigurazioa...



² Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia:

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN) organo konstituzional, kolegiatu eta autonomoa da, epaileek eta beste jurista batzuek osatua, eta Botere Judizialaren gobernu-funtzioak betetzen ditu, epaileen independentzia bermatzeko guztien aurrean funtzio judiziala gauzatzean.

www.poderjudicial.es/cgpi/

³ Bateragarritasun-testa:

1999an sortu zen, eta bere helburua da Justizia Administrazioaren esku jarritako sistema teknologikoen **bateragarritasuna** eta **elkarreragingarritasuna** erraztea. Estandar horiei esker, edozein administrazioek garatu ditzake gainerako administrazioekin bateragarriak diren aplikazioak, eta informazioa trukatu, Justizia Administrazioaren eremuan ez ezik, hortik kanpo ere.



4 Justizia Digitalaren Plana 2021-2026:

Abenduaren 7an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak aurkeztu zuen Gobernu Kontseiluan bere sailaren proiektu nagusietako baten ildo nagusiak: 2021-2026ko Justizia Digitalaren plana. Horren bidez, auzitegi-tako administrazio-kudeaketa eraldatu eta hobetu nahi da, eta herritarrentzako kudeaketak arindu.

Hasierako 100 milioi euroko inbertsioetik abiatzen da plan hau.

Une honetan, parametrizazioarekin lotutako prozesuak gauzatzen ari dira; izan ere, horiek dira ezarpenerako bukatuta egon behar dutenak, 2022ko urrirako aurreikusita baitago prozesu horien hasiera, eta honako hauek biltzen dituzte:

- ▲ AVANTIUS eta Profesionalentzako Zerbitzuen Ataria elebitasunera egokitzea
- ▲ AVANTIUS Bulego Judizial Berrira (BJB) egokitzea
- ▲ AVANTIUS gaur egun erabiltzen den bistak grabatzeko sistemarekin integratzea
- ▲ Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusirako (EAEAN) beharrezkoak diren egokitzapen espezifikoak garatzea
- ▲ Izenperekin ziurtagiriak baliozkotzea
- ▲ Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen (AMEE) laborategiko modulua ezartzea
- ▲ Doako Justiziaren modulua

Espediente Judizial Elektronikoaren ezarpena hiru fasetan egituratu da, 2021eko urritik 2023ko ekainera arte, eta bere barne hartzen ditu ondorengo atazak: azpiegituraren prestaketa, sistemaren karga eta datuen migrazioa, euskarri-ekipoen hedapena, prestakuntza eta gorabeheren aurreko euskarri operatiboaren jarraipena.

JUSTIZIA DIGITALA

EJE da «*Justizia Digitalaren Plana 2021-2026*»⁴ planaren oinarritzko ildo estrategikoa, eta gainerako ildo estrategikoak horren arabera antolatzen dira ere.

«Produkturik garrantzitsuen» «Justizia Karpeta» izango da»

EJE berria ezarri ondoren espero da paperean oinarritutako justizia nabarmen gutxitzea, jarduera eta epaiketa digitalak (baita ez-presentzialak ere) bultzatzeko aukera ematea, adimen artifiziala erabiliz jarduerak egitea (adibidez, bideo-grabatutako bistak testualizatzea edo itzultzaile neuronal judizial bat erabiltzea), zerbitzu digitalak sustatzea (zerbitzu horien produkturik garrantzitsuen «*Justizia Karpeta*» izango da), eta justiziako langileek gune «digital» batean lan egitea.

Halaber, garrantzitsua da kontuan izatea proiektu honekin lotutako **zehar-lerroak**, aurreko plataforma osoa martxan ipintzeko beharrezkoak direnak: **datuetan** oinarritutako

ITracasa

Tracasa Instrumental S.L. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erakunde instrumentala da, eta zerbitzuak eskaintzen ditu informazioaren eta telekomunikazioen teknologien erabilera eta lurralde-informazioaren ekoizpen eta kudeaketan oinarritutakoak, eta AVANTIUS Justizia Kudeatzeko Sistema atxikita dauka, aplikazioa administratu, kontserbatu, defendatu eta hobetzeko ahalmenekin.

Enpresaren izena «*Trabajos Catastrales S.A.*» izenetik dator. Enpresa hori Nafarroako Gobernuaren enpresa publiko bat da, 1982ko martxoan sortua. Lurralde-informazioaren erabilera oinarritutako zerbitzuak ematen espezializatuta dago, eta katastroko, kartografiako eta lurralde- edo geografia-informazioko sistemetak proiektuak garatzen ditu.

<https://itracasa.es>

<https://tracasa.es>



justizia (erabaki hobeak hartzeko); azpiegiturak eguneratzea (makinak, komunikazio-sareak...); informazioaren segurtasuna eta datuen babesa hobetzea (zibererasoak saihesteko); eta, azkenik, informatika-zerbitzuen egitura aztertzea eta hobetzea.

- ▲ 5.650 abokatu, 330 prokuradore eta ia 500 gizarte graduatu, eta, zeharka bada ere, 128 notario eta 40 erregistratzaile baino gehiago
- ▲ Egunero gure justizia-zerbitzu publikoarekin harremanetan dauden milaka pertsonak eta erakundeak



LANKIDETZA-LANA

Proiektu honetan, IJZk aurre egin beharko dion erronka handienetako bat izango da egin beharko duen ahalegin gehigarria, bi sistema izango baitituzte elkarrekin aldi berean: alde batetik, JustiziaBAT eta JustiziaSIP gaur egungo sistemak; eta, beste alde batetik, AVANTIUSen oinarritutako EJE berria.

EJEren ezarpenak honako hauei eragingo die:

- ▲ 14 barruti judizial
- ▲ Ia 250 epaile, 100 fiskal eta 200 abokatu
- ▲ Eusko Jaurlaritzaren mendeko Justizia Administrazioako 2.300 pertsona baino gehiago (adibidez, ondorengo kidegoetako langileak: Kudeaketa, Izapidetze eta Laguntza, Auzitegiko Medikuntza eta Lan-kontratuko langileak [perituak, itzultzaileak, talde psikosozialetako langileak])



EJEren ezarpenean arrakasta izateko, barneko eta kanpoko eragile juridiko horiekin lankidetzan aritu beharko da. Horregatik, garrantzitsua da **aldaketaren kudeaketa**⁵; hori dela eta, ahalegin handia egin beharko da plangintzan, koordinazioan, komunikazioan, prestakuntzan, motibazioan eta lidergoan.



⁵ **Aldaketaren kudeaketa:** kontzeptu honek zer-nolako atazak eta faseak dituen jakin nahi baduzue, kontsulta dezakezue Aurrera aldizkariaren 30. zenbakian (2008ko ekaina) argitaratutako «Aldaketa (ongi) kudeatzen jakitea» artikulua.



Jako pertsona eta erakunde erabiltzaileak
herritarrak



Jako pertsonak eremu digitalean
Jaren langileak
eragile juridikoak



Osalanen intraneta Sharepoint-en oinarrituta

Office365ek eskaintzen dituen funtzionalitateak aprobetxatuz, Osalanek erabaki du bere dokumentuak eta fitxategiak hodeira migratzeaz gain, beste urrats bat ematea eta intranet berri bat ezartzea, bere langile guztiei zerbitzua emateko.



6 Prozesuen mapa:

enpresa baten barruan garatzen diren prozesuak elkarren artean erlazionatzeko modua irudikatzen duen grafikoa da. Kalitate-prozesuei ekiterakoan, oso tresna eraginkorra izan daiteke eguneroko lana kudeatzeko. Prozesuen Mapa dokumentu bakarra da enpresan parte hartzen duten pertsona guztientzat, enpresak nola funtzionatzen duen ezagutzeko aukera ematen duena (anbiguotasunik gabe). Funtzionamenduaren erreferentzia bat da gaur egungo langileentzat eta etorkizuneko egungo diren langileentzat.

Osalaneko Kudeaketa Planak tresna bat behar zuen ekintzak hedatzeko, eta ekintza edo proiektu bakoitzak (hura laburtzen zuen fitxa sartzeaz gain), **lan-gune espezifiko bat** izan zezan, jarduera gauzatzeko behar den informazio guztia bildu ahal izateko. Baina lana partekatze eta bateratzeko zailtasun bat zegoen, gehienetan jardueraren produktua disko pribatuetan gordetzen baitzen. Hori dela eta, intranet berri bat egiten hasi ziren, **zuhaitz adarkatu itxurako SharePoint multzo bat** oinarritzat hartuta.

INTRANETA

Intraneta modu logikoan antolatzeko, «Prozesuen mapa»⁶ baten antzeko eskema bat aukeratu zen, non lauki bakoitzak prozesu bat irudikatuko zuen, eta prozesu bakoitzaren barruan azpiprozesuak egongo ziren. Horrela, Osalanen jarduera guztia jasoko litzateke: bai kanpora begira egindakoa (herritarrei eskainitako zerbitzuak), eta baita barrutik egindakoa ere, laguntza-prozesu edo prozesu estrategiko gisa. Gainera, antolaketa horrekin, proiektuen arduradunak aldi behin berrikusi ahal izango ditu ekintzen egoera eta horiek gauzatzeko izandako aurrerapenak edo zailtasunak, horiek konpontzeko behar diren ekintzak martxan ipintzeko.

Horregatik, intranet berriaren hasierako orria («home») (<https://elkarlan.sharepoint.com/sites/248-OSALANINICIO>) hainbat ataletan banatzen da, eta honako informazio hau biltzen du:

▲ 1. zutabea. **Prozesu operatiboak**, Osalanek langileei, enpresei, administrazioari eta, oro har, herritarrei zerbitzua emateko egiten dituen jarduera guztiak jasotzen dira hemen.

▲ 2. zutabea. Osalaneko langileek dituzten **laguntza-prozesuak** (edo euskarriak), Zerbitzu-jarduerari laguntzeko.

▲ 3. zutabea. **Prozesu estrategikoak**; horiek erabiliko dira egin beharreko jardueri buruzko erabakiak hartzeko eta horiek etengabe hobetzeko, beti ere zerbitzurik onena eskaintzeko.

▲ Eskuineko atala. **Interes komuneko informazioa** (barne albisteak, Osalaneko ekitaldi nabarmenak, Osalanen sareetarako kanpoko loturak, etab.



Prozesu edo azpiprozesu bakoitzerako SharePointeko gune bat sortu da hasierako webguneari lotuta, horretarako gune bakoitzeko orrialdeek beti izango dituzte aurreko gunera itzultzeko botoiak eta hasierako orrira itzultzeko botoia. Horrela, ez ditugu izango «leku galduak». Zuhaitzaren ikuspegi bat izateko, hasierako pantailan (eskuinean), aldaketa bakoitzarekin berritzen den intraneteko eskema bat agertzen da.

Kasu honetan, Informatika-taldeak eta Proiektuen arduradunak daukate guneen egituraren erabateko kontrolerako baimena, baina asmoa da prozesu edo azpiprozesu bakoitzak gutxienez arduradun bat izatea, eta berak erabakiko du nor sartuko den eta zer baimen-maila izango duen. Normalean, ardura

hori Kudeaketa Planari dagokion ekintzaren arduradunak izango du.

Proiektuaren hasieran, ezinezkoa izan zen hori egitea, erabili behar zen tresnaren ezagutza⁷ oraindik ere ez baitzen nahikoa. Horregatik, ekintzen arduradunak erabilerarekin hobeto moldatzen ziren heinean, guneak sortzeko irizpide komunak azaltzen zitzaizkien (proiektuen arduradunaren laguntzarekin), eta baimenen kontrola eta/edo orrialdeen diseinua lagatzen zitzairen.

Gune guztietako **baimenak** kontrolatzeko, excel orri bat egin da, Informatika-taldeak eguneratzen duena (guneetako arduradunekin adostuta). Lehen zutabeen Osalaneko langile guztiak agertzen dira, eta hurrengo zutabeetan, berriz, gune bakoitza; horrela, sarrera bikoitzeko taula bat sortu da. Taula hau oso baliagarria da lanpostu batean pertsona bat aldatzen denean, bertara sartzen den pertsona berriak lehenik zeuden baimen berberak jaso ditzan.

PROIEKTUAREN GARAPENA

Proiektua hainbat fasetan banatu da. Hona hemen fase horiek:

I. fasea: Intraneteko egituraren diseinua

Hasieran, gune bat sortu zen, intranetaren hasierako orri gisa erabiliko zena, eta bertan jarri zen gainerako gaikako guneetarako «sarrera-ateak» modu grafikoan, Prozesuen Mapa errespetatuz. Ondoren, hasierako orri honekin lotura izango zituzten gainerako guneak sortu ziren, diseinuak bateratuz eta itzulerako botoiak jarritz, goiko egituratik bereizita gera ez zitezen. Gero, erabilera komuneke guneei eman zitzairen edukia, hala nola «*Pertsonak*» eta «*Baliabideak*», langileak sartzen hasten zirenean eduki erabilgarria izan zezaten. Langileak tresna berri horrekin ohitzen hasi ziren arte, une horretan agerian utzi zen gehien egiten zen jardura eta sarbide zuzenarekin, kasu honetan, Covid-en kontaktuen bilaketa, aurrerago jardura hori dagokion prozesuaren barruan integrazteko ideiarekin.

Osalaneko langileek Microsoften ofimatikako oinarrizko prestakuntza bazuten ere, Osalanek prestakuntza hori freskatu eta sakontzearen aldeko apustua egin zuen. Horretarako, on-line saio bat antolatu zen, eta beharrezko oinarrizko funtzioak azaldu ziren langile guztiek jakin zezaten, adibidez, intranetaren hasierako



7 Tresnaren ezagutza:

Office365 (Word, Excel, Sharepoint...) berriari lotutako prestakuntza guztia eskuragarri dago Jakinan (Eusko Jaurlaritzaren Intraneta). Prestakuntza hori pilula txikien eta bideoen bidez erakusten da, eta bertan azaltzen dira haren funtzionaltasun berriak. Informazio gehiago: Jakinan

<http://jakina.ejgv.jaso> (atala: «Prestakuntza» + «Windows10 eta Office365»)

Zuzeneko sarbidea:

<https://elkarlan.sharepoint.com/sites/LaguntzaO365Soporte>

The screenshot displays the Intranet interface with several sections:

- Servicios de Osalan / Osalaren zerbitzuak:** Includes categories like Covid-19, Laguntza eta abiolabaketa, Kargidun dibulgazioa, Administrazio-kontrola, and Bilerak eta berrikuntza.
- Procesos de apoyo / Laguntza-prozesuak:** Includes Remosak, Soluzioak, Informazioaren bulegaketa, and Gurea.
- Proc. estratègicos / Proz. estratègikoak:** Includes Planjirak, Ardatzita, Komunikazioa, and Zuzendaritza-taldea.
- Berrik / Novedades:** A section for updates and news.
- Próximos eventos externos de Osalan:** A calendar listing external events such as 'Vigilancia de la salud de las personas trabajadoras' and 'Taller para técnicos de los GR Gestión de la Prevención de Riesgos Laborales'.
- Osalen en Internet:** A list of online resources including Web Osalan, YouTube, Facebook, and Twitter.



pantailara nola ailegatu, nola utzi gogokoetan edo esploratzailearen markatzaileen barran, edota esploratzailea irekitzean automatikoki kargatzea, eta azpimarratu zen ere orrialde hori izango zela gainerako guneetara sartzeko atea. Biler horretan bertan, une hartan martxan zeuden gune guztiak azaldu ziren.

2. fasea: Tresnarekin ohitzea

Hurrengo bileran, «Covid gunea» azaldu zitzaizen arakaketetan lan egin behar zuten langile guztiei, une hartan Osalaneko pertsona asko baitziren, eta «*indiar untxitxo*» gisa erabiliko ziren SharePointekin lan egiten ohitzeko. Webguneko dokumentuak nola **sinkronizatu** behar ziren azaldu zen Artxiobon. Esploratzailearen bidez maneiatu ahal izateko, eta pixkanaka-pixkanaka azaldu zitzaizen elkarlanean erabili behar zituzten artxioboak nabigatzailean ireki behar zituztela, karga-akats gutxiago ematen zituztelako eta errazagoa zelako elkarlanean lan egiteko.

3. fasea: Lan egiteko gune orokorrak sortzea

Intraneteko egitura sortu ondoren, oraindik arduradun zehatzik ez zuten gainerako gune orokorrekin lan egiten hasi ziren. Webgunearen diseinua «*home*» orrialdearekin eta bigarren mailako beste orrialde batzuekin inplementatzeaz gain, orain arte sareko diskoetan (M, N eta W) eta disko pertsonaletan banatutako informazio guztia biltzeko eta Sharepoint berrian modu ordenatuan uzteko aprobetxatu zen.

Gune bakoitzean gordetzen diren dokumentuek bi **baimen-maila** dituzte: lantaldearen maila pribatua (informazio sentikorrerako edo gainerakoentzat interesgarria ez dena) eta Osalaneko langile guztientzako maila orokorra.

Adibide bat: prestakuntza-prozesuan, maila pribatuan Osalanen barne-prestakuntza guztia antolatzen duen pertsona-taldea dago sartuta, eta maila orokorrean Osalaneko gainerako langileak daude, hor proposatzen den prestakuntza egiteko interesa izan dezaketelako.

Dokumentuen baimenak pertsona guztientzat berdinak izan ezin daitezkeenez, gune horretako arduradunak dokumentazioaren irakurketa- eta edizio-mailak kontrolatzea da asmoa.

4. fasea: Lan guneak sortzen jarraitzea

Zerbitzu operatiboak, hala nola «*Covid gunea*», funtsezko prozesuak dira; izan ere, herritarrengana, enpresetara, administrazioetara eta abarretara zuzenean iristen den jardura da, eta, beraz, kontrol handiagoa behar da.

Prozesu horiek ondo egin behar dira beti, eta, beraz, gune horietako «*home*» orrialdeek lotura

«Intraneta antolatzeako, “prozesuen mapa” baten antzeko eskema aukeratu da»

zuzena izango dute beti jardura horren **Jardunbidea** azaltzen lagunduko duten **Jarraibide** eta **Prozedura** idatzi guztietara, bai eta jarduerarekin sortzen diren erregistroak jasotzeko behar diren formatu guztietara ere. Gainera, Osalanen zerbitzu-aplikazio batzuk daudenez, gunearen «*home*» orrialdetik ere lotzen dira, horiek ere eskura egon daitezten.

Jarduerak erregistroak sortzen baditu, lotura bat utziko da sortutako dokumentu guztiak artxibatutako diren lekura (normalean, gune bereko dokumentuen karpeta batean gordeko dira), karpeta antolatuta eta kodifikazio komun bat erabiliz. Era berean, espedienteak datu-base batean jasotzen dira (excel bat izan daitekeena), eta datu-base horrek identifikatzen du espediente bakoitza beharrezko eremuekin ustiapen estatistikoak egiteko.

5. fasea: Automatizazioa eta formularioak

Fase honetan Microsoftek eskaintzen dituen tresnetako bat erabiltzen hasi zen (*Forms*, *Power Automate*, *Sway*, *Stream*)⁸, erabilera-esperientzia hobetzeko. Adibidez, auto bat erreserbatu nahi denean, Osalaneko ibilgailuen parkearen arduradunak kontrolatzen duen formulario bat dago («*Forms*» bidez garatua). Fase honetatik aurrera, ekipo informatikoa sortutako automatismo guztiak aktibo mantentzeaz eta



⁸ Microsoft-eko tresnak:

- ▲ *Forms*: aplikazio berri honek inkestak eta galdetegiak edo formularioak sortzea ahalbidetzen du
- ▲ *Power Automate*: *Forms*-ekin sortutako formularioak *Power Automate*ekin ere integratzen dira. Horri esker, galdetegiaren sarrera hartu eta negozio-prozesuaren bidez eraman daiteke, SharePointeko zerrendetan dituzun datuak bete eta beste aplikazio batzuetara pasa daiteke.
- ▲ *Sway*: aplikazio berri bat da, eta erraza da harekin txosten interaktiboak, historia pertsonalak eta aurkezpenak sortzea eta partekatzea.
- ▲ *Stream*: bideo-zerbitzu enpresarial bat da, non erakunde bateko pertsonak eskoletan, bileretan, aurkezpenetan edo ikaskuntza-saioetan sortutako bideoak edo beste bideo batzuk kargatu, ikusi eta partekatu ahal dituzten, taldearen lankidetzaz errazteko.

beharrezko euskarri teknikoak emateaz arduratuko da.

6. fasea: Kudeaketa Planeko ekintzak intraneteko gune bakoitzarekin lotzea

Ondoren, Prozesu Estrategikoen atalean, gune bat sortu zen Osalaneko Urteko Kudeaketa

«Osalanen asmoa da intraneta garatzen jarraitzea eta jarduera batzuk are gehiago automatizatzea»

Planekin, non Kudeaketa Planeko ekintza bakoitza dagokion prozesuarekin/gunearekin lotu zen. Horrela, esteken bidez, Ekintza baten fitxatik ekintza horren jarduera lantzen den tokira igarotzen da berehala. Kudeaketa Planaren fitxak ekintza bakoitzaren garapena ezagutzeko «atea» dira, eta bertatik ekintza bakoitzarekin izan daitezkeen aurrerapenak eta arazoak ezagutu daitezke, garaiz jardun ahal izateko eta etengabeko hobekuntza lortzeko.

7. fasea: Euren guneen erantzule egiten dira

Denbora bat igaro ondoren, intranetaren egitura garatuta zegoenean, arduradun batzuekin hasi zen lanean, eta arduradun horiek «euren lekua» kontrolatuko zuten. Genero, euskara eta liburutegi arloetako arduradunekin hasi zen. Bilera batzuk egin ziren bakoitzarekin, eta denbora eman zen SharePointen diseinuaren oinarritzko ideiak irakasten, eta laguntza eskaini zitzaizkien ere gunea eskematizatzeke eta ordura arte sareko disko partekatu eta pertsonaletan banatuta zegoen dokumentazio guztia biltzeko.

GAUR EGUN

Gaur egun, Osalanek intranet berriaren inplementazio-maila garrantzitsua lortu du, oraindik ere hainbat gune falta dira inplantatzeko eta denbora beharko da bukatzeko, dena den, ideia egituratuta dagoenez,

ez da zaila izango. Osalan disko partekatu eta pertsonalen dokumentazioa gune berrietara eramaten hasi da, baina beharrezkoa dena bakarrik helarazten saiatzen ari da, sareko diskoetan geratzen dena ezabatzeko izan dadin.

Osalanen asmoa da intranet izatea laneko aplikazio guztietara sartzeko atea. Beraz, jarduera bakoitza kudeatzeko «ad hoc» aplikazioen bat ezartzen den unean, gunearen orria egokitu besterik ez da egin beharko.

Adibidez, une honetan ezartzen ari den guneetako bat «Istripuen ikerketa» da. Prozedura ezagututa, gunearen «home» orri bat egingo da, jarduera horrek suposatzen duenaren gida laburtu bat izango dena. Orri horren erdialdean lan-gida agertuko da, eta pertsona bakoitzak egin behar dituen zereginen arabera, hor zehaztuko diren zereginetan aurrera egingo du, eta bertan behar dituen tresna guztiak aurkituko ditu. Eskuinaldean, gainontzeko guneen diseinuari jarraituz, aurreko mailara itzultzeko botoiak agertuko dira, eta baita intranetaren hasierara ere. Era berean, gune horretan bertan, Osalanen sartuko diren istripu-espeditente guztiak bilduko dituen excel orrirako esteka, jardueraren jarraibide eta eskuliburu xehatuak eta beharrezkoak diren aplikazioak (kasu honetan, ezbeharren aplikazioa, esaterako) eskuragarri egongo dira.

Beheko aldean, karpitetara sartuko ginateke. Bertan, espeditente bakoitzarekin batera doan dokumentazio guztia gorde beharko da, eta kodetuta eta ordenatuta artxibatuko da.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Osalanen asmoa da intraneta garatzen jarraitzea eta zenbait jarduera are gehiago automatizatzea Microsoftek eskaintzen dituen aplikazioen bidez. Adibidez, Prestakuntza-gunean kanpoko prestakuntza-eskaera inplementatu da (IVAPEk eskaintzen ez duena) «Forms» formularioak erabiliz, eta automatizatu egin da interesdunei abisatzeko. Erraza bada ere, sistema honek erabiltzailearen erabilera-espereintzia hobetzen du, aurretik word inprimaki bat bete, gorde eta pertsona ezberdinei bidali behar baitziren posta elektronikoz. □



OSALAN

Abenduaren 21eko
7/1993 Legeak
«OSALAN» Laneko
Segurtasun eta
Osasunerako Euskal
Erakundea sortu zuen
(«osa», osasuna esan
nahi du, eta «lan», lana
esan nahi du).

Erakunde berri hori
Eusko Jaurlaritzaren
administrazio-erakunde
autonomo gisa eratu
zen, Justizia, Ekonomia,
Lan eta Gizarte
Segurantzaren Sailari eta
gaur egun Lan eta
Enplegu Sailari atxikita.

Horrela, Osalan
**langileen
segurtasunarekin eta
osasunarekin lotutako
jarduerak** kudeatu,
koordinatu eta
sustatzeaz arduratzen
den erreferentzia
bihurtzen da.

Webgunea:

www.osalan.euskadi.eus





ALBOAN

Eusko Jaurlaritzaren SEN ziurtagiria

Herritarren Zerbitzu Publikoetarako Sarbide Elektronikoari buruzko II/2007 Legeak ezartzen zuen informazioaren teknologien erabileran datuen, informazioen eta zerbitzuen eskuragarritasuna, sarbidea, osotasuna, benetakotasuna, konfidentzialtasuna eta kontserbazioa bermatzeko beharra.

Bitarteko elektronikoak erabiltzerakoan behar diren konfiantza-baldintzak sortzeko, Lege honek **Segurtasunaren Eskema Nazionala (SEN)** sortzea erabaki zuen. Horren helburua da bitarteko elektronikoak erabiltzeko oinarritzko printzipioak eta gutxieneko segurtasun-baldintzak ezartzea, informazioa behar bezala babesteko aukera emanez.

2015ean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak indargabetu zuen II/2007 Legea. Hala ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak Segurtasun Eskema Nazionala jasotzen du 156. artikuluan, eta, horrela, indarrean jarraituko du.

SEN

Segurtasun Eskema Nazionala 2010ean ezarri zen, 3/2010 Errege Dekretuaren bidez, eta haren helburua da konfiantza sortzea informazio-sistemek zerbitzuak emango dituztela eta informazioa zainduko dutela,

beti ere kontrolatik kanpo etenik edo aldaketarik egin gabe, eta informazioa ezin izango dela iritsi baimenik gabeko pertsonen eskuetara. Horrela, 951/2015 Errege Dekretuaren bidez aldatutako SENek informazioaren eta zerbitzuen babes egokia emateko beharrezkoak diren oinarritzko printzipioak eta gutxieneko baldintzak ezartzen ditu, eta administrazio-informazioa tratatzen duten sistemen segurtasun

elektronikoaren arloko arau-izendatzaile komun bat definitzen du. Arauketa horren arabera, segurtasuna jarduera integrala da; eta bere atazak izango dira sareek eta sistemek jasaten dituzten segurtasun-arriskuak aztertzea, arriskuak arintzeko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak

diseinatzea eta hedatzea (bai antolakuntzakoak, bai araugintzakoak, operatiboak eta teknologikoak), zeregin horiek ziklikoki egin beharko dira, hartutako segurtasun-neurriak zerbitzuen egoera aldakorrera egokituz joan daitezzen.



GURESEK

Arauzko eskakizun horiei erantzuteko, 2010. urtearen amaieratik, Eusko Jaurlaritza GureSeK («Gure Segurtasun Kudeaketa») prozesua garatzen hasi zen, Eusko Jaurlaritzaren informazioaren segurtasuna kudeatzeko esparru gisa. Horren bidez, bermatzen da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Elektronikoaren Katalogoan sartutako



GureSeK



zerbitzuek dituzten arrisku informatikoen **aldizkako azterketa**, 3. digitalizazio-maila (gutxienez, inprimakiak deskargatzea) edo altuagoa duten zerbitzuak, hain zuzen. Azterketa horri esker, zerbitzu horien kritikotasuna zehaztu daiteke, eta, beraz, zerbitzu horien euskarri diren informazio-sistemek eskatzen duten segurtasun-maila zehaztu. Hartu beharreko neurrien artean, **norbanakoei** aplikatzekoak direnak nabarmentzen dira, hala nola erabiltzaileentzako betebeharrak, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Politika eta Informazioaren Pribatutasuna ezagutzea eta betetzea, edo langileak informazioaren segurtasunaren

arloan prestatzeko eta kontzientziatzeko beharrezko programak aplikatzea.

GureSeK prozesuak bermatzen du ere informazioaren segurtasunaren arloko erabakiak zuzenduko dituzten organoak egotea. Segurtasun eta Pribatutasun Korporatiboko Batzordeak, adibidez, informazioaren segurtasunaren arloko erabaki garrantzitsuenak hartzeko ardura izango du; Segurtasun Batzorde Teknikoak edo GureSeK Batzordeak, berriz, alderdi teknikoak aztertuko ditu, eta batzorde korporatiboak landu beharreko gaiak prestatuko ditu ere.



SEN ZIURTAGIRIA

Segurtasun eta Pribatutasun Korporatiboko Batzordeak hartutako azken erabakietako bat izan zen Eusko Jaurlaritzak SENen ziurtagiria lortzea. Ziurtagiri horrek Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomoek emandako zerbitzu elektronikoko guztiak hartuko ditu bere barne, eta SENeko 34. artikulutik eratorritako betebeharra da. Kasu horretan, Eusko Jaurlaritzaren informazio-sistemek, kategoria

(kritikotasuna) «*ertaina*» gutxienez badute, SENekiko adostasun-ziurtagiria beharko dute.

Ziurtagiri horri esker, kanpoko erakunde batek egiaztatu ahal izango du Eusko Jaurlaritzak informazioaren segurtasuna kudeatzeko erabiltzen dituen mekanismoak eraginkorrak direla eta definitutako helburuak betetzen dituztela, eta zabalduetako segurtasun-neurriak bat datozela lege-eskakizunekin.

Auditoretza egingo duten **auditoreek** egiaztatu beharko dute GureSeK prozesuaren irismenaren barruan sartutako zerbitzu elektronikoen honako hau betetzen dela:

- ▲ Informazio-sistemaren informazioaren, zerbitzuen, aktiboen eta segurtasunaren arduradunen **rolak eta funtzioak** zehazten dituen segurtasun-politika bat dagoela
- ▲ Rol horietarako pertsonak izendatu dituela, «*funtzioak bereiztea*» printzipioari jarraituz
- ▲ Gatazkak konpontzeko prozedurak edo organoak daudela arduradun horien artean
- ▲ **Arriskuen azterketa** egin dela, eta urtero berrikusi eta onartu dela
- ▲ Kasu bakoitzean aplikatu beharreko **segurtasun-neurriak** betetzen direla
- ▲ Informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema bat dagoela (GureSeK), dokumentatuta eta onartzeko prozesu arautu batekin

Horretarako, auditoreek egiaztatu beharko dute, besteak beste, badirela prozedura dokumentatuak, segurtasun-neurrien aplikazioaren erregistroak edo eraginpeko langileek badutela aplikatu beharreko neurriei buruzko beharrezko prestakuntza edo ezagutza.

Ziurtagiri horri esker, Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomoek baldintza hobetan jardun ahal izango dute beste erakunde publiko batzuekin; izan ere, egiaztatu ahal izango da Eusko Jaurlaritzak eskatutako gutxieneko segurtasun-mailak betetzen dituela, eta, beraz, beste organo batzuekin informazioa trukatu behar izanez gero, ez da inolako arazorik egongo. □



Informazio eta dokumentazio gehiago **Jakina** Intranetean (atala: «*Erakunde*» + «*Segurtasun eta Pribatutasun Korporatiboa*»):
<http://jakina.ejgv.jaso>

IXTEKO

Euskariana

Eusko Jaurlaritzak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, «Euskariana» izeneko proiektu berria jarri du abian. Euskadiko Liburutegi Digitala da, eta (hainbat entitaterekin lankidetzari esker) Euskadiko hainbat erakunde eta datu-baseren artxibo digitalizatuetako 750.000 erreferentzia eta objektu digital eta multimedia baino gehiago biltzen ditu dagoeneko.



Euskadiko Liburutegi Digital berriak arreta jartzen du euskal egileek sortu duten guztian, Euskadin argitaratu den guztian eta munduko edozein tokitan euskal gaiari buruz ekoitzi den guztian, eta bertan biltzen dira, besteak beste, Euskadiko 36 funts eta katalogo nagusitako materialen kopia digitalak: liburuak, eskuizkribuak, inkunabileak, egunkariak, aldizkariak, argazkiak, material grafikoa eta ikus-entzunezkoak, partiturak eta musikalanak.

Horien artean daude, besteak beste, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako artxibo digitalak, Eusko Legebiltzarreko liburutegikoak, hiru foru-aldundietakoak, euskal hiriburuetako hiru udaletakoak, Euskaltzaindiako Azkue Biblioteka eta Artxibokoak..., bai eta Espainiako, Frantziako eta Alemaniako Liburutegi Nazionalak eta Erresuma Batuko British Libraryko euskal gaietarako funtsak, eta baita Mondragon eta Euskal Herriko unibertsitateetako eta Eusko Ikaskuntzako biltegi digitalak ere.

Arturo Campión euskal politikari eta hizkuntzalariak erabili zuen lehen aldiz «Euskariana» kontzeptua XIX. mendean, euskal gaiari buruzko bere hainbat idatziren argitalpena biltzeko erabili zuena.



Informazio gehiago:

<https://www.euskariana.euskadi.eus>

PROTAGONISTAK

2021eko Ada Byron saria Elena García eta Jordina Torrentsentzat

Joaquín den urriaren 14an, Deustuko Unibertsitateak eman zuen «2021eko Emakume Teknologoaren Ada Byron Saria».

8. edizio honetan, Valladolideko Elena García Armadak (senior kategorian) eta Kataluniako Jordina Torrents Barrenak (gazte mailan) jaso dute saria.

Elena García industria ingeniariartzako doktorea da eta CSICeko ikertzaile zientifikoa. Emaitza aitzindariak lortu ditu exoeskeleto pediatrikoen garapenean. Era berean, 100 lan zientifiko baino gehiago argitaratu ditu eta bere ikerlanak 40 sari lortu ditu.

2013an Marsi Bionics oinarri teknologikoko enpresa sortu zuen. Ikerketa Zientifiko eta Teknikoaren Asturiasko Printzesa Sarietako epaimahaikidea da.

Bestalde, Jordina Torrents Informatika Ingeniaritzan lizentziatu zen Rovira i Virgili Unibertsitatean (2014), bi master eginez, eta 2019an doktoratu zen Pompeu Fabra Unibertsitatean, adimen artifizialaren, ikaskuntza sakonaren eta irudi medikoaren arloan.

Gaur egun HP Inc. – Large Format Printing-eko Big Data & Analytics departamentuan lan egiten du (Bartzelona), adimen artifizialeko eta ikaskuntza automatikoko taldearen buru delarik. Kataluniako Unibertsitate Obertako irakaskuntzalanekin uztartzen du bere lana.

Ada Byron saria Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateak sortu zuen duela zortzi urte, eta bere helburua da ikerketa eta garapen teknologikoaren alorrean emakumeen **bokazioak sustatzea** eta emakumeek gizateriari egindako lanari eta egindako lorpenei balioa ematea.



Informazio gehiago:

<https://ingenieria.deusto.es/cs/Satellite/ingenieria/es/ada-byron>

